Aingurak erreketan

Jon Benito

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2001 Jon Benito
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2001eko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

PAGADI BAT LANBROPEAN

EGUNAREN ERDITZEA

Ohe ertzean eserita
begiratu zuen ispilura

Ez zen forma beteak ikustera ausartu
distantzia txikiak ezagutu nahi zituen
ezpainetarako bideak zabaldu

Airea islatzen zuen ispiluak
haizeak margotzeko adina kolore

Hitz batzuk aipatu
eta leihoraino hurbildu zen
—ispilu garden hartara—

Ireki eta margotu ez zituen haiekin osatu zen
begiak galdu zitzaizkion mugagabe

Elurra lehen aldiz oin biluzien azpian

LEHEN DESKRIBAPENA

Petalo belikoak dituzu
betazalak

gaur ernaldu eta gaur ihartuko direnak
hozkailuan gordeta
gaztiga zaitzadan denbora ez iragaitera

ezpainik eta bularrik galkorrenak dituzu
elurrezko bola maldan behera
eta beti ahul izateko obsesio hori

atzazaletan hitz pozoitsuak
airean koloretako lapitzez
margotzen dituzunak

KONPROMEZURAKO ESKAINTZA ETA BIDAIARAKO PROPOSAMENA

Laranja bat oparitzen badizut
laranja bat baino gehiago eman nahi dizut
bizi garratz bat
hazi berriak

Laranja bat oparitzen badizut
ez dizut ilargia eman nahi
ez geometriarik ez perfekzio iragangaitzik

Laranja bat oparitzen badizut
lore ihartuak ordezkatu nahi ditut

errekan urik ez datorren seinale

OSATZE ARIKETA

Naizenari goroldioa hazi zaio
erreka bazterrean zorrozten den harria ni

Izozten zaren aintzira zu
zerua beste dimentsio batean

Eta denbora
amaitzen ez den sekretu hori

NON GAUDEN NOLAKOAK GAREN

Eguzkipean ezkuta zaitez
lurraren gainean edo laino artean baino beherago
nahikoa da horrekin

Badakizu zoriona ez dela gurean bizi izan
Zeru ertzari aharrausika
nahi gabe irteten zaizkizu desagertuen biografiak
eta jaioko ez diren umeak

Muino urperatuak ikusten ditugu paisaian
lurrean iragazten zaizkigun oinetakoak
eta gure begientzat desagertu den kea

Apur bat beldurtzen zaitu haizeak
eta aurrera begiratzeak
Erditzeko ahalmenik bazenu
birika bat baino ez nizuke eskatuko

Batzuetan esaldirik tragikoenak maite ditugu
horregatik ari naiz gezurretan

FORMULA FISIKOA: DISTANTZIA ETA DENBORA

Orduak zenbatzen pasa ditinat orduak

Hazia ixuri eta euria egitea konbinazio perfektua dun
ziur sentiarazten gaituztenen zaunkak entzuteko

Baditun egun batzuk hemen ez hagoela
Basapiztien jungla dun hau
biziraute ahalegina

Egun zuhurtziaz zabiltzan eskaleak kaleetan
pikondo hostoak milikatzen ditizten beleek
eta aldea galduetako altxorrik preziatuena dun hire sexua

Herrialde bahitutako turismoa gurea
ohituren tatuatze krudela

arrotz zaizkigun geografiak arrotzentzat
orduz kanpoko bisitak eta ibai handien gainezkatzea
ziur sentiarazten gaituztenen zaunkak entzuteko

Bihar desolazio berberak ausentziak hausteko
bihar distantzia berean ehun milia haratago

Orduak zenbatzen pasa ditinat orduak
eta orduak eta orduak

LO AURREKO ZALANTZA

Jakin nahi nuke
zerk aztoratzen zaituen igande goizetan
zaldiak margotzen dituzunean betazaletan

Jakin behar nuke
ilunabarretan erditzen diren panpinak saihesteko
eta iragandako neguak berpizteko
orduko bakardadeekin

Jakin nahi nuke
noren zain zauden beste egunetan
zure begietako zuriarekin
zein soineko egiten duten

non amaitzen diren ametsak
eta norekin konpartitzen dituzun
ukabilekin egin korapiloak
astelehen goizetan

BIHAR ERE ARGITUKO DU EGUNAK

Mikel ez zegoen arduratuta
sabaia zeru hurbilago bat zela iruditu zitzaion
materialagoa eta errealagoa aldi berean

Gloriak deitu bitartean bazuen denbora apur bat
loreak urkatzeko
zigarroak piztu eta
aireak zelan kontsumitzen zituen ikusi
eta katuari kontserbako janaria emateko

Halaxe beste urtebetez egon zitekeela
iruditu zitzaion
bakearen apologia zela hura

Telebistan kantari ari zen Jim Morrison
Aspaldi preziatutako kolore andana
alferrik kabitu zitzaion begietan

Larrutuko ziren azalez eta hitzez biak
ez zuten ilunabarraz postalik egingo
bazekiten-eta egunsentia aurreratuko zitzaiela
elkarri deus eskatu gabe

AZKEN GLAZIAZIOKO SOBERAKINAK

Azken glaziazioko soberakinekin jolasten ari zara

Bide ertzetako hondarra jaso
eta datorren negurako zapatak egin dizkizut
haizeak olatuak sortu arte iraungo dutenak

Argazkiei izotza hazten zaie ertzetan
Hotza jainkoek egina balitz bezala
sartzen zaigu hezurretaraino
Egunak etorri bezala doaz
azala erortzen zaigun arren udazken amaieran

Orain eguzkiaren alboan ezagutu duzu zerua
elurrezko bolak eta gezurrak jaurtitzen dituzu
musuak bailiran

Zauri txikiak nire argizarizko begientzat

ARTXIPELAGOA: KONTINENTEAREN HONDARRAK

Ez dakigu zerk apurtu gaituen
baina ez zaigu arrotz korronteetan bagoaz
Portuetan inork ez gaitu elkarrekin maite
eta gurean
hondoa jo dutenek bakarrik hartzen dute lur
atzazal artean ziurtasun apur bat behar dutenek
inorako bidea jarraitzeko

Talka egitea bakarrik geratzen zaigu
zoriaren zain egotea
inertzia eta bide berak zapaltzea
Kasualitate gehiegi dira aho bi ukitzen
horregatik ez duzu nahi esplikaziorik soberan

Laztanak baino latzago diren
borrokak biluzik
ezpainen edo marearen talka geratzen zaigu

Oreka faltsua da ez aurreratzea
eta balantza zalantzen ondorioa
Laprast egiterainoko egia eta
hezetzen gaituen ezinegona

Gabeziak eta zero
eta zeru bat aterpe

Ontzia ainguratuta dagoela iruditu zaigu
baina uraren azpian ez dugu lurrik sentitu

Mila zati egin gara
mina pieza bakar egiteraino

MIHIAREN AZPIKO TRIKUAK ETA AITORPEN PROBISIONALAK

Klarionaz hitz eroak idaztea falta zaigu
baldin eta aitorpen probisionalak maite badituzu

Bular biluziak erakustea falta zaigu
mihiaren azpiko trikuak
ezin askatu ahal dituzun ukabilak
Lur hezeetako kondaira agorrak berridaztea
oroitzen gara existitzen gara

Ezin ahoska ditzakezun totelak begietan
margotzea falta zaigu

Egia zati bat falta zaigu
kontu txiki bat bide zaharrei ekiteko
totel bat aitorpen probisionalak
itsas azalera erakarriko gaituen zerbait

ubideetara berbideratuko gaituena
eta elkarren besoetara bilduko

Botila erdi beteak bagenitu mezuak bidaltzeko...
baina agian telefono kabinak ere okupatuta daude
oraindik

DESTAINA

Nola adierazi ez dakizuna
eta dakizuna ezin esan

horregatik zauritzen zaitu egonak
horregatik baliogabetu zaizkizu ahoan
egia eta fideltasuna

izan zenituen
geografia aztertzeko mapak eta
distantzian sentitzeko betaurrekoak
udazkena aurreratu ahala

baina ez zaitez arduratu azala berritu bazaigu
hau bakardadearen eboluzioa da
ez beste ezer

PAGADI BAT LANBROPEAN

ZURRUNBILOA

Zainak ireki eta
memoriak sortutako polena
amaitzen ez den sasitza erreka bazterretan
inertziaz mugitzen diren liliak
eta minez hazi zaizkigun gereziondoak

Alkandora loratuetan
ehundegietako lorategi txikiak
eta berezkoa ez den irribarrea
bizirauteko beharrezko dugun
libertate txiki hau babestera

Zainen azpian obsesioak
aingurak erraietan
goizeko izotza urtaro baten amaiera adierazten

zainak lotzen gaituen lurrarentzat
zainak lotzen gaituztenentzat

Ez ditugu alferrik basoak grabatu bularrean
Behin hiltzen gara
eta bitan

HAUTAZKO AITORPENA

Nik diot zuekin nagoela
nahiz eta ez duzuen nirekin
batailarik irabaziko

Nik diot balio bera duela formulak
karratu handi eta txikientzat

Ez nautela militarrek eta bakezaleek salbatuko

Nik diot
baina ez zaizue axola

GARTZEN-EK LURRA IRAULTZEN ERAKUTSI ZIGUNEKOA

Zapatariak zapatak baino beste zerbait egiten du
oinaldeak astindu
ez du dantzan egiten
aurrera egiten du
hazi berriak ereiten

Zapatariak injustiziaren mugak erakusten ditu
bakea non hasten den
Zapatariak oinarritik eraikitzen du etxea
ur gazia edo agorraldia datorrenerako

Zapatariak mundu berriak errebelatzen ditu
langileen zapata zoletan
izarrak gerturatzen ditu
eta indar ahulak biltzen bide luzerako

ANFIBIOA

Udako eguraldi eguzkitsuaz
bankariak etorri ziren hiriburutik
karramarro txikiak harrapatzera

Portutik aurrera joan ginen
hondartza ikusten zen urruti
basamortua hazten zitzaigun bizkarrean

Haitzetan jesarri ginen
gerriz gora biluzik
zangoak sartu genituen uretan
atzazalak zahartu bezala zuritu zitzaizkigun arte
eta maxkaldu urtaroz kanpoko sagarren modura

Inork ez zituen uholdeak zenbatu
ez eta izurriteak ere

Inor ez zen pasibitate zoriontsu honen errudun
berdin etorriko zen hilobi bat aurkitzeko garaia
edo Iraila
edo izozkiak saltzen zituen emakumea

musukatzeko aukera
Pozik geunden ametsak sortzeko adina
burujabe ginelako
Gero udako ekaitza datorren bezala
abioi astunak etorri ziren
eta gure paretik arin igaro
aitorpen bat sekretu bat
edo korapilo bat askatu bailuten

Minetik jaregin ziren
min materialetik
Materia ez da desagertzen
eraldatu egiten da
Horra gerrak halabeharrez irakatsitako fisika

Eztarriak lehortu zitzaizkigun hautsez
eta oihu egiteaz
Bihotzak heze zeuden eta zangoak fresko
korrika bizkor egiteko

Inork ez zuen gerrara joan nahi

AZKEN GUDAROSTEA

Kapitainak badaki zergatik aukeratu duten
eta azken itxaropena da eurentzat

Badaki gerraren egoerarik krudelenak
hurbilduko direnean
arima ahulduko zaiela soldaduei
etsaien artean ere elkar besarkatuko dutela

Zirku dramatiko honen domadore hautatu dute
jakinik inor gutxik behar dituela heroiak gaur egun
Gidariek ere nekez topatzen dute lan
anbulantzietan ez bada

Kapitainak ez du atzerako deirik egingo

Lehen armarik ez zenean
gorrotoak iraunarazten zituen
orain armak badituzte baina ametsik ez
ezintasunak eta beldurrak mantentzen ditu tinko

Kapitainak badaki ez dela galtzaileen historiarik
erresistentzi ahaleginak baizik
tigrearen azkurak direla eurenak
Egunsentiko erasoetan hil ziren lehen soldaduak
gero gosea hotza eta nekea etorri ziren
indefentsioa indartzera

Hasierako egunetan lurperatu egiten zituzten
hildako lagunak
ondorengoak lur gainean flotatzen uzteko

Batzuek euliak dituzte biriketan
besteak pagadian galdu ziren apropos

Soldaduak bizikletak bizkarrean dituztela doaz
maldan gora
Heriotzak markatzen ditu etsaiaren lerroak
eta kapitainak ez du atzerako deirik egingo

GERRAKO PARTEA

Artilleria gogorrez kolpatzen zuten hiria
irratia piztuta loak hartzera ohitzen hasi ginen
atertu gabe jarraitzen zuen elurrak ere

Lehergailuek aterpe zaharrak bota zituzten
eta nekazariek ihes egin zuten noranahi

Hankaz gora geunden
gauza ederrak ikusten genituen begien parean
Apenas genuen oinarrizko premiak asetzeko ezer
herriko emakumeak mutilatu zituzten
eta sabelak puztu zitzaizkigun gabeziez

Burusi azpian geneuzkan azken fusil baldarrekin
babesten ginen
hondamendiaren arkitektura
eta duintasunaren prezioa ezagutzeko

Telefonoak noizbait joko zuen
itxaropenez irauten genuen
Alferrik zen lurrak ereitea

joanak ziren goldeak erabiltzen zekizkiten azkenak
eta belarri bat galtzeko
edo hezur lehorrak topatzeko arriskua zegoen
Soldaduek hemen utzi zituzten bizikletak
eta gurpilekin flotadoreak egin genituen ez itotzeko

Anbulantzia batek telebistako aurkezleren batek
edo Nazio Batuetako agintariren batek
noiz deitu itxaron genuen egunetan
galdetzeko ea gu ginen auxilioka ari ginen bakarrak
munduaren simetriaz galdetzeko
eguzkirik ba ote zen hodeiez bestaldean

Lehen erasoaldietan moztu zituzten telefono hariak
baina joko zuen zain geunden artean

Itxaropena ei da galtzen azkena

LARRIALDI MEZUA

Esan ez etortzeko

Ez etortzeko
inprentako lagunak erori direla
zapatariak erori direla

Ez etortzeko
Alicia atrapatu dutela azken enboskadan
eta Felix ez dela iritsi hitzordura
Haritz ez dela gehiago itzuli

Ez etortzeko
itxaroteko barealdiari
babesteko lagunen etxeetan

Ez etortzeko
itxaroteko barealdiari
atzerriko ontziak ez direla gurean izan
anai-arreben berririk ez dugula
eta makal gabiltzala berrantolaketa lanetan

Ez zaizkigula berri txarrak atsegin

IHESERAKO
BESTE ARRAZOI BATZUK

Esana dute ihes egitea
koldar eta inteligentea dela
aldi berean

Zer egin arroz eskukada batekin
erein edo momentuan sabelak
berdintzeko erabili?

Horra lastozko gizonaren txikitasuna
galdera xeheen gehiegikeria
galdera gordinei erantzun zehatza topatu ezina
inon babes hartu ezina

Hor iheserako arrazoi batzuk

1937 MAIATZAREN 7 ETA 8 (BIDAIA GOIZEKO IZARRA ETA HABANAN)

Horma zurbila atzean
zerulerroraino luzatzen den sabaia
Ezinegona merke fusilatzen da
eserita dauden zur gogorraren gainean
hilkutxak berrerabiliko bailituzten

Ihes dagienak badaki zer uzten duen
Akuarioan inork ez du negar egiten
arrainek ez dute memoriarik
badakite ez direla gehiago itzuliko
ez dute tragediarik makillatu nahi
Geratzen direnei soilik egiten diete gorazarre

Oinazeak elkar jo eta korapilatu egiten dira
inork ez ditu besteren miseriak miazkatu nahi
inork ez daki malkoek zein bide egiten duten
eta trenak badoaz eta tarteka birika bat falta da

Aspaldi ohituta daude zainekin urkatzera
hatsa falta bazaie ere
Ez dute lurraz bi oin gorago hil nahi
lurperatzen dituzte hezi zituzten lurraren pare

Arropa eta argazki zaharrak ez ezik
bakoitzak bere zoritxarrak daramatza
Larruak badaki ikara zer den
eta beste koraza batez margotzen da

Leku izenak paratu dituzte
bataila zaharrak oroitzeko

Maleta beteekin doaz
dena estaltzen duen amorruaz
eta jaietako zapaten lokarriak estutu dituzte
bidaia luzea izango delako

Gauero itsasoa da euren begietan

Ez ditu ezerk salbatuko

BIRIKAK LURREZ BETETA

Ito

Arnasa hartu ezinik
edo arnasa hartzea eragotzirik
hil

Biziki larritu

Zerbaiti bizirik irauteko duen bidea
eragotzi edo
ukatu

SUSTRAIAK ETA ADARRAK

KOMETA ZULODUNA

Sarea bota zuen
eta aireak zekarrena
harrapatu

Gero begiratu zuen
eta ez zuen ezer ikusi
kometa zuloduna baino

POETA IDEAL ZAHARREZ OROITZEN DA

Largabistarekin ilargia begi lauso bat
iruditu zitzaion poetari
betazaletatik kanporako begia
ogia aldarrikatzen duen ahoa
edo amaitzen den musua
mundu bat beste inongo burmuinetan errotuko ez
dena

Eta poetak eklipse artifizial bat egin zuen
begirada ukatu zion ilargiari

Nekatuta
lurrera bideratu zituen largabistak
burezurrak antzeman zituen lurpean
hildako heroi zaharrenak

EGUNEROKO ILUSIOA

Hogeitaka urteko gatazkaren ondoren
auto kontroletan
zoriontasun gehiegikeriagatik atxilotuta
jujeek artxibo zaharretan errekisatzen dituzte
zure aitorpenak
mugaz bestaldekoen kontuak
eta porrot bat iragartzera datorren isiltasuna

Mezu zartatuak biltzen dituzu ezpainetan
eta etsipen apur bat
zure barrunbe urduriak kateatzera

Mina dabil airean
begietan sumatzen ez bazaizu ere

Etengabeko guduak nekatu egiten du bat
Samingarria da etxera itzuli eta
gutun zatiak aurkitzea
Nor da gai bere beso ahulen indarrarekin soilik
etxeko harroinei eusteko?
Desarmatuta zaude galera handienak ekiditeko

Orain larruzko jainkoak maite dituzu
rock izarrak
gerraren ondorioz erabilpenik gabe
geratu diren aireportuak
lurretik barreiatuta dauden mapak
eta begiak inguratzen dizkizun lurra
inongoak bagara oraindik ere

Orain arrainak eta zapatak
eskuz ehizatzeari utzi diozu
denbora da gurasoek etxera deitu ez dutela
Nork ez du bakarrik utziko duten beldurrik izan?
Nork ez du guztia galtzeko beldurrik izan?

Orain iraultza txikiekin amesten duzu
haizeak proletarioen etxeetako arropak baino
ez ditu astintzen hemen
eta berri txarrak datoz hegoaldetik

Berriz ekingo diozula
berreraikiko dituzula oinarriak
Argazkiak eta gutunak erreka ertzean
eta porrot bat iragartzera datorren isiltasuna

Hezetasuna besterik ez dabil zerupean
eta kartoizko armadura igarota
ireki zaizun zauria
etorkin bihotzetan
Munduarekiko zabaldu duzun hondarrezko babesa

Amaitzen ez den hogeitaka urteko gatazka
oraindik bihar

SIBILAREN AUHENA

Ez zitzaizkion erantzun osoak sekula bururatu
Egia esan hiltzeko era ugari daude
eta hilobiak aurkitzeko ere denbora behar da baina
ez zitzaizkion erantzun osoak sekula bururatu

Telefonoaren bestaldean
kazetariak galdetu zion elkarrizketa amaitu aldera
nola hil nahi zuen
—egoera hipotetikoan beti ere—
aukeratzerik balu halako momentuan

Ez zuela horri buruz pentsatu
aitortu nahi zion
azken aldian kontzentratuta zebilela
biriketan airea pilatzearekin
inoiz baino biziago sentitzen zela
eta ezin sinetsirik zebilela
inoiz begiak bilduko zituenik betiko
baina bazekien ez zela guztiz egia nahiz eta
ez zitzaizkion erantzun osoak sekula bururatu

Gloriaz oroitu zen

Harriak ipini zituen telefonoen artean
hitz eskasia saihesteko
“Begiak itxita” pentsatu zuen
baina inozokeria zen hura
Hodeien usainaz edo
uraren hezeaz galdegitearen pareko iruditu zitzaion
Lotsa sentitu zuen horregatik

“Ez nuke lotsaz hil nahi” aitortu zuen biribil
lehen sentitutakoarekin lotze aldera
Ez zion kazetariari harridurarik sumatu

Elkarrizketa amaitzen ari zela zirudien
gauerdian egunsentia usaintzea zen hura
itzultzen den legioaren zuziak ukitzea

“Ez nuke lotsaz hil nahi” errepikatu zuen
eta egiazkoa zirudien isiltasuna entzun zuen gero

EZEKIELEN GENEALOGIA

Nire osabak esaten zuen

ze nire osaba hilda baitago
ahotsik gabe geratu zelako
eta ahotsik gabekoa ez da pertsona

gure herria harea gainean
eraikirik zegoela
eta euria egingo balu
hondoratu egingo ginatekeela
dena apurtuko litzatekeela

Eta hilak
eta berregin beharreko bizitzak
geratuko liratekeela
hondartza samingarri hartan

Aitona Sestaoko ontzioletara
lanera Salamancatik etorri

eta gasolindegi inguruan
finkatu zen lurrak dira horiek

Baina aitona ez da oraindik hil

ADARRAK ETA SUSTRAIAK

Osaba bizarra egiten ari zela
erre zen basoa

Amildegiak suaren bidea moztu izan ez balu
eguzkia eta infernua bertan ezagutuko genituela
esan zigun amonak
baina nahikoa ardura bagenituen
sineskerietan pentsatzen hasteko

Egun haietako euriak ere
ez zuen gar handi haiek baretzerik lortu

Hostoak dantzan hasi ziren
zerutik zintzilika baleude bezala
Habiak erre ziren eta enarek hegan egin zuten
Suak mendebal haizeak jarraitu bitartean iraun zuen
erre usainak asteetan

Etxe inguruko lurrak irauli genituen

mahatsondoak ipiniko genituelako
errautsek ongarri gisa balio zuten
Adar erreak bildu zutoinak eta ikatza egiteko
enbor belztuak ebaki eta
suak agerian utzi zituen sustraien beso
korapilatsuak
askatu genituen lurretik

Arotzek halako zur okerrek
balio gutxi zutela esan zuten

Hamaika hilabetez izan genituen bazter batean
harik eta gau batez osabak galdetu zuen arte:
Zer egingo dugu sustraiekin?

AKATS KRONOLOGIKOA

Isidro Benito izan nintekeen
Malatesta batailoian jardun zuena
edo Antonio Aranberri burdinazko gerrikoan lanean
baina zoritxarrez bi belaunaldi beranduago jaiotzea
suertatu zitzaidan

Aitak
Partidu Komunistako tabernatxora eramaten
ninduen
oraindik betaurrekoak nituela
Ez dut uste amaren errua denik
baina bi belaunaldi lehenago jaiotzea
gustatuko litzaidake
edo bi hamarkada gutxienez

Horregatik ere lotzen natzaie egungo borrokei
aurrekoekiko zorra kitatzeko

ITZALEI ABESTEN

Laster hilko zarela esan didate
bihotza nekatu eta birikak desagertu zaizkizula
Ez zatozela gehiago

Hemen aulki bat sobera
aireak itoko ez dituen arrainak
eta tigreak barrenetatik orroka

Bizitza ez da denbora baino
eta hondartza bat desagertzen zaigunero
harriak birrintzen ditugu berregiteko
Lurra jaten dugu baina bazoaz bazoaz bazoaz
Badakigu bat gehiago faltako zaigula
zainak hoztu eta hezurrak gogortuko zaizkizula
bazoazela eta ez zatozela
hau ausentzien melodrama
bat gehiago dugula ehorzteko sinetsi ezina

Ez dakigu ez otoitzik ez irauteko erregurik
Ez dugu itxaropen apurrik biltzeko
Badakigu babesak non eraiki

baina zain gaude urak nondik iragango
lurrak ezin du gure mina iragazi

Orain badakigu eskuak non ipini
luiziak gelditzeko

GABEZIAK

Eskuak bildu zituen estu-estu
molekulak konprimitu nahi bailituen
aintzira artifizialak sortu
iragandako malkoekin

Hatzen aleazioa egin zuen
ihes baina urak
oxigenoa gasifikatu bailitzan
edo bere egoneza islatu ispilu hartan

Hatzak izerditu zitzaizkion
dardara eta higadura bildu
kanal bat zabaldu zuen
distantziak salbatzen diren moduan

Ozeano minimalista zen hura
desagerketaren izua
marea behera etengabea

Eskuak askatu zituen
eduki urria erortzen utzi
gari sail idorretan
hazia botatzen den moduan

Espazioa eraldatu zen
eskuak hutsik zeuzkan
pixka bat heze ordea

HELMUGA GABEKO BIDEA

URA DARAMA

Azken erromeria da hau
herri txikietako plazetan

Inork ez du bankariaren alabarekin
dantzan egin nahi
Ausentziek gehiago batzen gaituzte
Nik ez dut besteentzat begirik
Errari nabil barkatzeko
ahul eta norabide gabe azken aldian

Inork ez du sasoi hauetan oroitzapen txar bat
memorian boxeo-kolpeka eduki nahi

Errepide hau beste norabait doa
eta gu elkarrekin baina ez elkarrengana
eta ez aurrerago
Itsasoa sentitzen ahal da errekaren amaieran
eta musika apur bat ozen San Martin utzi ahala
Gaurtik aurrera ez dakigu bihotza zerez bete

Larruzko zapatak ditut euritarako

lastoa erraiak osatzeko
eta babes gutxi datozen entregatarako
Elkarren oztopoekin egiten dugu topo
Datozen ekaitz guztiak irauteko gai garela
sinetsarazi diogu elkarri
ez gaituela mareak irentsiko
nahiz eta ura aspaldian hazita datorren

Norabide gabeko trenetan erretako
ikatz guzia izartu da gauez
Eskuetan gurutzatzen dira gure odolbideak
Lurrarekin estutu arren
inoiz baino ilaunago sentitu gara

Musika entzuten da oraindik plazan

HAUTU TXIKIAK BIDEA EGITEN DU

Badira ordu batzuk noraezean gabiltzala
erreferentzia guztiak galdu ditugu
eta intuizioa dugu iparrorratz bakar
baina ekibokatua

Etsi dugu ia
apur bat hitz egin dugu zoriaz eta ezbeharraz
Kontu sakonak bururatu zaizkigu
antzinako batailez oroitu gara
bibliografia zaharrak kontsultatzen diren eran
eta begiak non bildu bilatzen egon gara
Urdaila nekez eta bakardadez bete zaigu
bidegurutzera iritsi arte

Bidegurutzean ohiko zalantzak
Sua antzeman dugu aurrerago
Argia

Egoera normal batean
edonork ihes egingo luke sutatik

Hemen ez
orain ez
Hautuak galera dakar beti berarekin
Bide zuzenik ez da jada
baina egina dugu bidea

Merkatuak salbu
bidegurutzetan ezin da etxerik jaso
ezin da beti bidegurutzean iraun

Aurrera egin ahala argia galdu dugu
inon ez da kerik
Ez diogu elkarri aitzakiarik jarri nahi izan
ixilik goaz

Inoiz baino lurtarrago eta zurtzago sentitu gara

UHOLDE BERRIEN IRAGARPENA

Argirik ez zen inon
eguzkiak berarekin eramana
begiak estali balizkizute bezala
Behingoagatik atertu zuenez
txalupan irten ginen iluna pertzibitzera

Itsasoak gaua eta lurra eramango zuela zirudien
Izarretan desitxuratzen ziren hieroglifikoak

Babesa eskatzeko urrun geundenean
itzali zenuen motorra
Zeruan hegan egitea zen hura
baina beste hemisferio batean

Gabezia bat baino
margotu zitekeen zerbait zen
isiltasuna

Zapatak erantzi genituen eta

garagardo epel bat zabaldu
Oreka hezez egingo genuen topa
Barrenetako suak itzaltzeko
aski isurkin bazen inguruan
“Euria!” esan zenuen
“Euria eginagatik ez duk itsasoa gehiago bustiko!”
pentsatu nuen

Bi orduz egon ginen horrela

Ura zetorren uraren gainera
itsasoa gehiago hazi gabe

Etxera itzultzeko ordua zen
Motorra piztu zenuen
Biratu genuenean bustita zeuden zapatak
Etxerainokoa oinez egin genezakeela otu zitzaidan
baina urak atzazalak irentsi orduko
itsatsia nuen hotza

Lehen urratutako bidea josi genuen
lehorra begi bistan jadanik

ITZULERA SAIOA

Emergentzi deia behar zuen izan
asteak ziren telefonoak jo ez zuela
iratzargailua zirudien
goizean oheak abandonatzeko eskatzen

Kontzientzia iratzarri zidan bestaldeko ahotsak
Hiri bazterretako suaz eta
etxera bidean emandako
azken besarkadez oroitu nintzen

Ez zegoen hitzik soberan
Denbora erraz zihoala aitortu zidan
orain ez zela taberna beretan ibiltzen
eskularruak zituela hotzerako
eta aterkiak konpartitzeko inor ez

Zilarrezko eskuturrekoa bazuenez
galdetu nahi baina barnerako gorde nuen
aukera desegokia zelakoan

Esaldiak erdizka uzteko ohitura zuen oraindik

eta hitzak piztu nahiko ez zituela pentsatu nuen
Bigarren aukerak beti dira porrot iragarriak

Isildu egin ginen
Baziren urte bi elkarrekin mintzatu ez ginela
memoria blindatu eta
distantzia handitu zitzaigula

Bide erratuetan ikusten nituen nire oinatzak
Urak nekez egiten duela atzera bururatu zitzaidan

Kaioen hegadak entzun genitzakeen

Belarriak estali nahi genituen
bagenekielako zer zetorren isiltasunaren ondoren
elkarri zer esango genion edo zer ez genion esango
zer entzun nahi genuen eta zer ez genuen entzun
nahi
Baina hitzez baino gehiago komunikatzen genuen
hala

Damutzen ikasi nuela aitortu nion
bizi garen garai hauetan ez dela gutxi

Duela hiru edo lau urteko
herriko jaien azken gauaz oroitu nintzen
gogo gabeko musu zenbait eta
bidea amaitu balitz bezalako etsipena

Ez genuen ulertu zer adierazten zuen
melodia mutu hark:
barealdia edo errukia

Beste nonbait ereiten zen mina
beste zerbait ukitu genuen
bihotzeko astuna sakondu

Logika gabeko hitz batzuk esan genituen
inon babes hartzen ez duten perpausak
Eremu labainkorrean genbiltzan

Sinesten hasi nintzen bide zaharretara itzuliz gero
denborarekin berriz keinu eta begirada herabe
berdinak
maitatzen amaituko nukeela

Une bateko irudipena besterik ez zen izan

Errekak aurrera zihoazen
zein bazterretan geratzen ginen jakin gabe
Oroimena ez da izoztutako harri bat baino

Ahalik eta erarik duinenean saiatu nintzen
sentipen truke hura amaitzen

Telefonoa eskegi nuen

Etxera bidean emandako besarkadez oroitu nintzen
Bordelerako bidaia eta uztaileko arratsak

Telefonoak ez zuen berriro jo

ETXERAKO BIDEAN BETI

Atseden hartu zuen

Ibilbidetik aldendu zen apur bat
distantziak neurtzeko
Orain arte jarraitu bidea eta
bihartik aurrerakoa neurtu nahi zituen

Perspektiba galdu gabe
Perspektibarik galdu gabe

Atzoko errepideak ezagutu zituen
ur-emari meheko bidezidorrak
erabaki xumeak

Munduaren eta bizitzaren osotasuna
pertzibitu zuen bertan
fisikarien biribiltasun aparenterik gabe

Inoiz etxera iristen ez denak bezala

PORTURA EZ DATOZEN ONTZIAK

Ontziak berandu datozela aipatu digute
eta bigarren aldia da atzeratu dutela
arribatze data

Inork ez du arrazoirik aipatu
baina inor ez da larritu mareak iragan izanagatik

Ontziak berandu datozela aipatu digute
eta hirugarren aldia da atzeratu dutela
arribatze data

Inork ez du arrazoirik aipatu
baina matxura batez hitz egiten dute
uraren dilatazioaz eta
ondoriozko ozeanoen hedapenaz
gasolioa neurrigabe hazi dela eta
haize txarrak datozela

Ontziak berandu datozela aipatu digute
eta zazpigarren aldiz atzeratu dute
arribatze data

Ez dute etxera itzuli nahi

HAREA ITSASERTZEAN

DAMUTU BAINO LEHEN

Ez zaidazu idazten dudana esplikatzeko eskatu
ez zaidazu justifikatzeko eskatu
ez zaidazu ardurarik eskatu

Zuk badakizu larru urratua irakurtzen

MARTHAK INGURUNEARI BURUZKO IRAKURKETA EGIN DIGU

Marthak ez zekien benetan lurra biribila zela
arrazoiketa sinplea zuten bere zalantzek

Inoiz lurra amaitzen ikusi ez zuen arren
aitonak esana zion mundua erlauntza handia zela
eta etxetik kanporako guztia arrotza

Yuri Gagarinek munduari bira emateko
atmosfera urratu zuenean
kristauek zeruaren izaera erlijiosoan
sinesteari utzi ziotela esan zion amak
orain ez zekiela zeri heldu

Hazten ari zitzaizkion bularren biribiltasun ezaz ohartuta
lau ume hil ziren bere begietan

Hozkailuan gordeta zeuzkan aterkiak
Istripu larria zen hemen horrela bizi beharra
Nork lo egin nahi du erdizka egindako oheetan?
Nork maite ditu bi hanka soilik dituzten zaldiak?

Txoriari ez zaizkio hegoak azkarrago hazten
harri gehiago botatzeagatik

EMAIDAZU TRANTSIZIORAKO AUKERA BAT LUR BERRIAN

Arrainak irteten zaizkizu galtzarbeetan
erlojuak dirudite garbigailuek
trenak ikustera jolasten gara etengabe

Hau ihes baten kronika izan zitekeen
baina ezinezkoa zaigu hondamen hauek
abandonatzea

Non dira iragandako pozak
non basamortu emankorrak
parentesi arteko meatze gaziak
panpina zaharren akabatzeak
lur gabeziak oin azpietarako

Irratiak piztuta utzi zituzten ilargian

Munduak zutaz jakin balu bezala
ihes egiten du zubien bestaldera

non gureak ez diren oinatzak dauden
enarenak zaldienak eta anitzez gehiago

Ukabilak dauzkazu ahoan
aipatzen ez dituzun hitzak
eta saminaren abezedarioa

Gorpu hotzak eta bakardade biluzia
besoak bildu eta
bizi metro kubiko bat konprimitzen saiatzeko

ZERGATIK DIODAN BETI GEZURRA

Zuk badakizu hitz hauek
zalantza direla hasieratik
arkatzaren dardara direla
arkatzaren dardara bezain xumeak
arkatzaren dardara direla nire hitzak ere
Oreka eza

Bestela lerroak egingo nituzke
egungo bizitza bezalakoak
geziak

etengabeko birkreazioa
ama umeak sortzen eta umeak hazi emakume egin
eta berriz umeak sortzen

trenak gauean iluna argitzen
edo amaieradun kaleak besarka gaitezen
Orratzak

Argazkiak? Ez
jada argazkiak ere ez dira seguruak
baina hitzak egiten ditut dardarak
Beldur duenak bezala
Beste zerbait egin nahi
baina hitzekin konformatzen dena naiz
bizirik nagoela adierazteko
kardiogrametan idazten duena

Baina ez tinkatu gehiegi
hain dira apalak nire hitzak...

GURE TRISTURAK ETA BELDURRAK

Zer dakarkit pozak
etengabe islatzeko ispilu bat ez bada
edo bizkarrean daramagun mugarria
Zauri gaizki osatuak
egunen etorri ahula edo
nomadismo ziklikoa ez bada

Hazia beste nonbait erein nahiko genuke
gure barnerako gari lurrak
eta ahalik eta kardiograma lausoena izan
esku batekin sortu eta bestearekin apurtzen dena

Isilka ari naiz
isilka ari banaiz beldur naizelako da
isilka ari banaiz esanahia berbera delako da
mezuak irauten duelako
mezurik badelako nire hitzetan
zuri ari natzaizulako nahiz eta isilka eta beldurti ari

Barkatu
baina beti dut
zerbait apurtu dudan sentipena
isilune gozo bat edo
sentipenen oreka errepikakorra

Berdin dio
esku makalez ari banaiz ikatzezko hitzak idazten
ez naiz justiziaz ari
begiak zapi zuriz estaltzen ditudan arren

NORK EZ DU BERRIZ SORRERARA ITZULI NAHI?

Nahiago dut sagarrondoen azpian
argazkiak ateratzen ikus zaitzadan

eta ni limoiondoei sendo helduta
arramatatik margaritak erauzten

Gezurra diote argazkiak betirako direla diotenek
Inoiz saiatu zara argazkiekin ontziak egiten
baineran?
beste norabait garamatzaten ontziak egiten?
Harrika apurtutako leihoak osatzen?
Argazkiak koloregabetu eta usteldu egiten dira
hitzak eta promesak bezala edo orain garen hau

Argia itzalita bakarrago gaude orain
Limoiek bonbillak dirudite
edo zerbait haragitsuagoa esnetsuagoa

Euria dakarzu zurekin

Orain ikusi nahi zaitut
argazkiak eta ni arramatatik margaritak erauzten

Euria dakarzu zurekin
hilekoa eta zikloa berresten duten antsiak

Biluzik
berriz birsortzen gaituen guztia maite dugu

URTARO BERRIAREN ETORRERA

Gauza bakoitzak bere denbora din

Eguzkiak ihartu egiten ditin teilatuak
haizeak huntza ez beste antzaldatzen din
Urtaro berria hire etxeraino iristen dun
baso erreak igarota
Han ernaltzen ditin haziak
irakurri ezin ditunan mezuak uzten ditin
eta berriz hasten eta hazten

Txori izateko hegalak falta zaizkion
baina erraz iragaten ditin haranak
migratzen din edo hibernatzen
lurralde berriak zeharkatzen ditin baina
etxean dun hiltzen
Esku artean eztanda egiten duen leherkaria dun
zikloka biziarazten gaituena
Ilargiarekin agertzen dena
eta pertsiana bota ahala ezkutatzen

Gauza bakoitzak bere denbora din
ez ezan neguan orbelik bil

APOKALIPSIA

Euria ari du
itsaso berri bat gatzagatan sortzen
Egunero bi aldiz egiten du bidaia bera eguzkiak
ahitzeraino

Noe tabernetan lapurrak eta galtzaileak biltzen ari
da

Airerik apenas geratzen zaigu biriketan
Erraietan lehorra eta uholdeen iragarpena
Mugiarazi ezin ditugun ontziak hondarretan
Nahiago dugu zango bat erauzi
segundo bat gutxiago biziko garela pentsatu baino

Erloju zaharrak konpontzen daramatzagu urteak

hitz gozoak eta
zure besoetara itzul gaitezkeen seinale bat
itxaroten
mundu zaharra estaltzera datorren
itsaso berriaren sorrera
itxaroten

Hau ez doa errekan behera
Hau aingura da
Errekara jaurti eta bertan hondoratu da
bertan hartuko du lur
bertan hartuko du ur

Hau ez doa errekan behera
Hau ez du errekak eramango
Hau aingura da
errekak ustelduko du
errekak jango du

HAN DENA ERRAZAGOA DA BETI

Zerbait hautsi zaigu
eta ez dakigu zer
baina zerbait hautsi zaigu

Badakit hori
bestelako hitzak dituzulako
bestelako begiak
eta behar ez den hizkuntza

Badakit zuk desiratutako guzia ezin eman dizudala
Zerbait hautsi zaigu
ez dakigu zer baina
zerbait hautsi zaigu

Ez dakigu non
ez dakigu zer baina
zerbait hautsi zaigu

Ez dakigu udako euritan non aterpetu

Zerbait hautsi zaigu

Ez da lorontzirik hautsi
ez dira aireplanoak urperatu
hariak eta uharte txikiak geratzen dira soilik
baina guri beste zerbait ere hautsi zaigu
beste zerbait lurperatu dugu

Badakit zer eskatu ahal dizudan
badakit zer geratu den gugandik

Badakit zer geratu den gugandik
bide berriei elkarrekin ekiteko